

VII URTEA - II ZENBAKIA

1926 YORAIŁA-BAGIŁA

EUSKERA

EUSKALTZAINDIA'REN LAN ETA AGIRIAK
TRABAJOS Y ACTAS DE LA ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
TRAVAUX ET ACTES DE L'ACADEMIE DE LA LANGUE BASQUE



BILBO'N

Euskaltzaindia'ren etxean
Ribera, 5

DONOSTIA'N

San Iñazio'ren Gutundegian
Garibay, 28

EUSKO-ARGITALDARIA

BANCO DE ESPAÑA, 3

BILBAO, 1926

IGARKIZUNAK

R. M. Azkuek

**ERIZKIZUNDI IRUKOITZARI BIZKAIAK ERANTZUN
DIONA**

EŘAN ZUHUŘÁK

Landefetxe

EUSKALTZAINDIAREN

Batzar - agiriak

I. IGARKIZUNAK

I. Izenez zer diren.—II. Efiaren itz batzuk.—III. Igarkizunak izatez.—IV. Asierako ta amaierako esamañak (fórmulas).—Pipitakiak.—V. Ikusi-makusiak.—VI. Fernandeztafen euskal-igarkizunak.—VII. Don José de Echegaray ta Altzolako ikusi-makusitxo bat.—VIII. *Euskalzale, Euskal-Esnalea, Viejos textos del Idioma eta Cerquand.*—IX. ¿Aurkeriak otedira?—X. Edipo Efege ta Tebas-ondoko Esfinge.—XI. Sanson bere eztei-egunetan.—XII. Sabako Efigina ta Salomon.—XIII. Aurkeria bat edo bestetxo.—XIV. Erderazko igarkizun batzuk eta gureak.—XV. Eskari bikoitza.

I. Erderazko itz *acertijo*, nere sakel-iztegitxoan, iru euskalitz auek aldamenean dituela ageri da: *asmakari, asmaketa ta igarkizuna*. *Asmakizuna* ere, Saraitzuar baten eskutik aterata, nonbait irakur diteke (1). Gu bezela beste eñi batzuetan ere zalantzan dalkuskigu idazleak uste au adieraztean: *acertijo, enigma ta adivinanza* erderaz, latinez *problema* ta *enigma...* eta abar.

Itz auen gisaz zentzunez antzeko baizik eztiren asko ta asko berdintzat izkera guzietan erabiliak izan ohi dira. Len aipaturiko lau euskalitz oriek eztira zentzukideak (sinónimos), aintzat artuak izanaŕen. *Asmo* «ingenio»-ren ondorengoa dira *asmakari, asmaketa* ta *asmakizun*: lenengoa, «invenção ta escudriñador», bigaŕena «tarea de inventor», irugaŕena «invenção»; acertijo izatera berenez eztira eltzen. Erderazko «acertar» euskeraz azaltzeeko eztugu beste itz egoki-egokirik *igarri* baizik.

(1) *Euskal-Esnalea*; VII.

II. Ezin ukatu diteke noiztanka eñiak berak bes-te lau itz auek ere ematen dizkigula: *asmatu, gogoratu, pentsatu eta somatu*. Gero kirian-kirian erakutsiko ditudan lau igarkizunetan bizi dira itz-mitz auek. *Xurixko ta laxko ASMATZEKO gaizto* diote Laŕauntaŕak. *Txurixko da, gorixko da, GGORATZEKO gaiztoxko da* ikasi nuen Saraitzaŕen artean. *Xurixko, belxko, PENTSATZEKO gaixtoxko* esaten da Lapurdin. Oiar-tzunen beñiz *txuri-txuri laxko, somatzen da gaixko*. Nexka-mufiko-artean onela agertzen dute Bizkaiko basauriren batzuetan guraizen igarkizuna: *Puntan punta bi, atzean zulo bi; artaziak dira ta ezetz IGARI*. Erderazko «acertar» euskeraz *igañi* dugu. Beste lau itz oriek onen aideak dira, ez ordea kideak; berdintsuak nolabait, bainan ez berdinak.

III. Ikus dezagun orain igarkizun auek izatez zer diren. Yatoriz bitarikoak dira: *descriptivos* batzuk, besteak *insinuativos*. Lenengoak iragañi nai dugun izakia (gauza) oso-osorik nolabait zeatuz (describiendo) agertzen dute. Adibidez, ona emen Aezkoan entzundako igarkizun bat: *Mandre bat (an mandre da Gipuzkoako maindire ta Bizkaiko izara) mandre bat, arizkoa ez, guzia estaltzen du ta ura ez*. Adibide onetan *eluŕaren* izakera poliki ageri da.

Bigaren moñazko igarkizunetan gauzen izakerari aipurik ere etzaio egiten; izenari ukitu, besterik ez. *Masaila iragarteko, ma* baizik esaten eztuen iragar-leak, iñolaz ere eztu aurpegi-ertxa zeatzen (describir).

IV. Batzuk eta besteak, bi mota auetako igarkizunak, asieran (bigaŕenak noizbait amaieran ere bai) berarizko esamañak (fórmulas) dituzte. Bizkaian non-nai onelan asi oi ditugu lenengo igarkizunak: *zer dala ta zer dala* onelako ta alako izakia. Saraitzaŕak esamaña bitxi-bitxi au dute: *Pipitaki papataki nik*

baitakit gauza bat. Napañoako euskalki txanbelin onetan eriak igarkizunai eztie izen au ematen, ezta ango bereko idazle Gañaldak eman ziena—*asmakizuna*—ere. *Pipitakiak* dira an gure igarkizunak. Aezkoan batzuk onela asten dituzte bereak: *eztukala igartzen*; beste batzuk *eztukala pentsatzen*. Burunda-aldean igarkizuna erakutsi ta gero oñen antzeko galdea egin oi dute. *Kutxa txiki bat aizkoraz beterik* «*¿Eztakinala zer den?*» Lenizko ibárean onela entzun nituen bat edo bestetxo: *eztakizuela zer dan ura edaten joaten dana, tantarik edan barik etorten dana*. Izan diteke beste onen antzeko banakaren bat ormenekoa entzutea. Orainarte beintzat egiazko esamaña asierakorik bi lenengoak baizik etaizkit belafriratu: *Zer dala ta zer dala ta Pipitaki-papataki*. Lekeitio igarkizuna agertu ta gero *ezetz igari* esaten zaie entzuleai. Gazteak yostailutxo auek asi baino lenago beste bi esamaña erabili oi dituzte: **IGARTEKA ibiliko gara, IKUSI-MAKUSIKA egin daigun.**

Igari ezin duenak *ematen* esan oi du Gipuzkoan, Bizkaian alderik geienetan *izten*; Lekeitio-ondoko Murelagan onen ordez *azak eta poñuak jan ditut* entzuna dut.

V. Bigañetariko igarkizun oriek beron izena dute, Bizkaian beintzat, nolakoa edo alakoa: *ikusi-makusiak*. Asierako esamañatzat *Ikusi-makusi* esaten du iragarlek.—*¿Zer ikusi?* galde egin oi diote entzuleak.—*Ikusten, ikusten, ikusten, ikusteeeeen ma, naiz be, naiz u...* itzaren lenengo izkia. Ernani-tańak esamaña berdintsua dute. *Ikusi makusi.*—*¿Zer ikusi?*—*Nik ikusi, nik ikusi, nik ikusiiii, u,* ugela baldin bada. Ar dezagun *igarkizun* itza lenengoentzat. Bigañen auentzakoak goraxeago agertu du burua.

VI. Igarketan edo igarteka astia emateko baditu-gu, berogeい bat urtetik onontz gure artean sartuta, beste motatxo batzuk ere: erderazko *logografos*, *charadas* ta *fuga de vocales*. Auek eztira gureak, yatorriz beintzat. Egiazko euskaldun gizon bat ezagutu nai duena betor bai Euskalerira; bainan, emen sortua izanaren, eztezala aintzat *Fernandez Pimentel* izena duen gizonik artu. *Logografos* ta beste zer oriek, *Euskalzale* zeritzaison nere Albistari maite artan asko sortu ta seaskatuak izanaren, Fernandeztafen igarkizunak ditugu, euskaldun jatorak ez. Batfo ere eztut ikaste onetan aipatuko. Yakin nai dituena beren seaska-bijoa (1).

VII. Ezta *ikusi-makusien* adibide (ejenplu) batire eztiot, euskerazkori beintzat, sarbiderik emango. Buruzko yostagailutxo auek aoz erabiltzekoak ditugu, ez liburuetan bizi izatekoak. Onelarik ere, orain nere lankide ta adiskide maite euskaltzainak aozabalka ikus eztitzadan eta bjar-etzietañ ikastetxo onen irakurle epetsuai beren gogaldia (umorea) alaitu dakioten, itzaure onetan batfo edatsiko dut, orain berogeい bat urte Altzolako urastegian sortu ta ildako ikusi-makusitxo pañagarri lergari bat. Beste urzale askoren artean Bilboko alaba goizetik gabera aberasturiko bat eta Espaiñiako *Ministro de Gracia y Justicia* zen Don José de Echegaray arkitzen ziran Altzolan. Gauez, apaldutakoan, bigira luze bat egin oi zuten beren arteko batzuk. Noizean beinka ikusi-makusika yolastu oi ziran. Eztakit ala bere kabuz ala norbaitek artarako poztu ta puzturik, Atxuriko alaba Bilbotarak ere *veo veo* esan zuen gau batean — *Qué ves, edo qué ve* erantzun zioten bestear — *Una cosita — Con qué le-*

(1) Onegatik ere *fuga de vocales* txiki batek geroxeago burua agertuko du.

trita — Mu. Igarlenaiak pozik asi ziran igarketan: *muñeco* batak, *mujer* besteak, *muselina*, *muletón*, *muro...* ta beste beredin. *No señor* batari ta *no señora* besteari, erantzuten zien iragarleak. Onetan *sopitas* (euzkerazko *izten* edo *ematen*) esateko zeudelarik, Echegaray Ministroak zutitu ta begirunetsu *Andrea*, esan zion, *nik biar gabez esango diot mu ori zer den. Bitartean, nere belařietara eldu eztiten, ez inor txori ere agertu jotoi! ikusi-makusi ořen erabakia.* Uřengo gauean inoiz baino laguntsuago izan zan Altzolako urzaleen bigira. Berealaxe asi ziran aurégu-nean bezela *mulo*, *mula*, *mulato*, *muleta*, *musaraña...* ta nork daki beste zeinbat esaten. Minutu batzuk arazo onetan igarota, akerbizar zuridun Echegaraik, bere esergutik (yařilekutik) yaikiz, onela edo onelatsu andre iragarleari itz egin zion: *Andrea, Madridko Academiak agertu dizkigun mudun itz guziakuste dut aipatu dizkiodala. ¡Otoi! ager bezagu itz sakon ori.* «Sopitas» *nik ere.*

— *Muñuelo* (1) erantzun zion ařoxko ta argiro gure Atxuriko alabak.

¡Ango txaloak, iri-karkaila ta algarakt! Bafeen bařez negar egin zutenak ere izan omenziran.

VIII. Eun ta laurogeitik gora dira nik orainarte bildu al izan ditudan igarkizunak. Orientatik berógeiren bat *Euskalzale*-k orain ogei ta zortzi urte argitaratu zituen. Bestetxo batzuk *Euskal-Esnalearen* ofíetan irakurí ditut. Euskaltzain urgazle dugun J. C. Guerraren *Viejos textos del idioma* deritzaion liburu ederéan lau, berotatik iru len nekizkienak. Cerquand Paueko seme batek bildurikoak ere gufi batzuk baditut. Gainerako guziak eztute orainarte argirik iku-

(1) *Buñuelo, beignet; euskeraz kausera nonbait, txigor B ta G.*

si. Irakurleak bere begiz nabarituko duenez, badira alkañen antza dutenak. Bakoitzaren erabakia azkenaldean ikus dezake.

IX. Norbaitek, bear bada, igarkizun-migarkizun auek aurkeritzat edo beinik bein mutilko-neskatotxoen arazotzat artuz, esan dezakete gezaldu Euskaltzaindiak, bere lan eta agiri-artearen argitaratzeko, gai goratuagorik? Aurkeri eztira, gutiesgarí (despreciables) ala ere gutxiago. Euskalerian ezagutu lezazkean buruzko lan zañetarikoak dira nere ustez ekitaldi auek. Europa ta Amerikako Museorik bête ta ornitu ta entzutetsuenetan ikus dezazke, urezkoak bailiran baino arduratsuago gorderik, zartasuna baino beste domurrik (baliorik) eztuten esanala izaki. Guk tamalez orain mila edo bi mila urtetik gorako gauza ikusgarírik mendiak ezpadira ezin erakuts dezakegu. Guk ezin duguna, ordea, nolabait gure Eri maitagarí onen urteide edo mendeide ta bizikide ziran beste Eri andi bik nolabait egingo digute: Greziak eta Hebreotáren Eriak.

X. Zabal ditzagun bérón liburu zar bat edo beste eta gure auen antzeko igarkizunak zañ-zañ eta zañaren agurgarí ta gordegarí direla sinesgogoñenari ere sinestazaraziko diote. Antzekoak esan dut. Badugu bat, ordea, basauri ta urixko askotan zabaldua, Sofoklesen Tragoedia batean ageri den igarkizun bat. Orain b mila ta bosteun bat urte Atenas-ko aldauri (arrabal) batean yaio zan idazle andi au. Buruzko lanak ugari ta ederák amaitu zituen. Erdiak baino geiago galduak omendira. Ezagutzen zaizkionen artean ederéna ta entzutetsuena *Erege Edipo* dela diote. Tragoedia oneitan irakurtzen denetik markets (monstruo) izugarí bat, erdizka leoi ta emakume egodun, Esfinge (*Sphinx*) zeritzacionak, Tebas - ondoan bideztiai igarkizunak

agertzen egunak ematen zituen. «Izen» esaten zuena luárak iretsi oi zuen. ¿Tebas-ko urira nor bidez ibili? Edipo buruz zur ta zoñotz ta sarkor bezen biguñ, go-gabera ta erukior omenzan biotzez. Bein, bere eritáarak markets zarpatsuaren menpetik ateratzekotan, berarengana agertu zan. Urira urbildu zenekoxe agertu zitzaison emaleoi izugarria ta beste itzik gabe onela mintzatu zitzaison. *Zer dala ta zer dala goizean lau oinean, eguerdian oin bian eta aratsean iru oinean dabilena.* Apurtxo batean gogoketan, igarketan ego-nez, erabaki au eman zion Eŕegek: *Goizean* (aurzaroan) *lau oinean, eguerdian* (gaztezaroan) *oin bian ta aratsean* (zarzaroan) *iru oinean dabilena* GIZONA DA. Au esanez, luŕak aotzaŕa zabalduz, bere efaietan suntsitu zan *Erioaren lagunik andiena*: Esfinge.

XI. Zabal dezagun orain beste liburu bat, Hebreotaréna, gure artean, Elizarena delako, askozaz ezagunagoa: *Liber Judicum* latinez, *Libro de los Jueces*. Sanson-ek bein, Aita ta Amarekin Thamnathara zijoala, masti batetik aurka agertu zitzaison-leoi gazte bat esku utsetan artu ta bi ormazak (mandíbula) banatuz ilik utzi zuen. Egun batzuk geroago emazte-gaiarengana beríz zijoalarik, leoiaren ilotza ikusi nai izan zuen eta bere agoa erlauntz itzuli edo biurturik begietaratu zitzaison, ezti-beraska ta guzi. Nondikoa zen esan gabe gurasoai ezti artatik yaten eman zien. Eztei-egunak (zazpi egun) eldu ziranean maikide zituen- ogeita amar mutil gazteri igarkizun bat zuela esan zien. Igaŕi bazezaten, berak ogeita amar maindire ta ogeita amar soineko emango zizkiela; ezin bazezaten, ordea, berak berari (Sansoni) beste ainbeste maindire ta soineko ematekotan. Baietz maikideak: *propone problema ut audiamus* (1) ager zak igarki-

(1) *Jud.* XIV-13.

zun ori, entzün dezagun. *Zer dala ta zer dala*, gainerratu zuen indartsuak, *yale batengandiko yanaria eta sendo batenganikako gozotasuna*. Iru egun osotan ari izan ziran gogoketan ezteiliar aiek. Zazpigárena eldu zenean, estú ta laí Dalilarengana agertuz, *xora zan ire senaŕa*, esan zioten, *eta xuri ta bideratu zan arik eta bere igarkizunaren beri erasoarte*. Baldin au egin nai ezzpadun, sua emango dinagu lenen eroři ta erořen sortetxeari gero. ¿Soineko gabe gu ikus-teařen erakarri al gaituzute ezteiotara? Dalilik ekinen ekinez igarkizuna azalerazteragino xoratu ta xuritu zuen senaŕa. Zazpigáren eguna gautu baino lentxeago *Quid dulcissimis melle et quid fortius leone belařiratu zioten ezteiliařak Sanson-i*. ¿*Zer eztia baino gozoago ta zer leoia baino azkařagorik?* (1).

XII. Irugáren adibide zaŕa ere, bigárena bezela, Hebreotařen artekoa da : irugáren onetan igarle-iragarleak gorengo mailakoak izatea : igarkizunak ezařiko zituenta, Eřegiňa; beren erabakia ematekoa, Eřege; ta Eřege ere ez nolanaikoa, Salomon, buruntzidun (koroedun) guzien artean yakintsuena. Irakurlea auréeko itzez atondu edo gertatú gabe, bat-batera, itzetik ortzera, onelaxe asten du Eřegeen irugáren liburuak bi koroedun aien alkari-kustea. *Sed et regina Saba, audita fama Salomonis in nomine Domini, venit tentare eum in ænigmatibus* (2). *Baita Sabako eřegina ere, Salomonen yakintza, Jaunaren izeneko yakintzaren otsa entzutean, bera IGARKIZUNEZ zirikatzera etorri zan.* ¡Amaika aldiz esan alzuen Sabako yakinnai ark *zer dala ta zer dala* onako au, *zer dala ta zer dala* órakó ori, *zer dala ta zer dala* arako urat Igarketan ari izan zirana badakigu, beren arteko igarkizu-

(1) Jud. XIV-18.

(2) Lib. III Reg. X-1.

nak nolakoak eta zeintzuk izan ziran ez. Beren loŕatzik ere ezta ez Biblian ez beste gutun bat ez batean ageri. Gure eŕiak, ordea, irakuŕiz ezzpadaki ere, berak asmatutako igarkizun bat, Salomonek erabakitakoa, one-laxe darakusku. Saraitzaŕen artean orai dela amabost bat urte ikasi nuen. «*Salome (1) il zuzun. ¿Bere se-meari nork eŕan? Soldadu batek, irabazteagatik, arek eŕanen zakola. Konla mintzo zuzun Salomonen aitzinean. Bazkoaz iltzar* (por Pascuas lunallena), *iáutez ilberí* (por Carnaval novilunio), *eŕege Salomonen-ama ezta ez gosè ez egari*.

—*Aŕen il duk* (Entonces ha muerto).

—*laurek eŕan duk* (Tú mismo lo has dicho).

Eta Salomonek pipitakia igaŕiz soldaduak zerbait irabazi zuen.

¡Aurkeriak dirala igarkizunak! Aur oteziran Edipo, Esfinge ta Sofokles, Dalila ta Sanson, Salomon ta bere entzule ta ikerle Eŕegiňa?

XIII. Bat edo bestetxotan, egia da, yostazale gazte buru-arinak gaineraturiko zerbait nabari diteke. Ikastetxo onen auŕealdean aipatu dugun igarkizun onetan-*zer dala ta zer dala puntan punta bi, atzean zulo bi*—auen uŕehgo itzak gazteixon-artearen sortuak dirudite : *artaziak dira ta ezetz igaŕi*. Saraitzun Otxagabian beintzat, *xurixko ta laxko, pentsatzeko gaizto ¿zer da?* galde eginez *gatza* darantzunari itz zakar auek esaten zaizkio: *xan zak ene k. k. beratxa*. (Auxi da lentxeago eskainitako *fuga de vocales*. Bi *k* orien ufen zein *vocalek* iges egin duen &nork igaŕi ez?)

XIV. Euskera galtzen duten uri ta basaurietan mintzoaz batera galdu izan oi dira aintxinako izaki geienak ere : ipuinak, oiukiak (kantuak...) eta abar. Igarkizun auek, ordea, alderen batean beintzat, erde-

(1) Bethsabee izan zan Salomonen ama. Nere saraitzaufak, ordea, Salome-ri ezafí zioten amatasun au.

raz ere bizi dira. ¿Oraino euskeraz mintzo direnak erderatu ta zabalduak ezotedira? Baietz dirudi. Ona emen Iruñan Rosalia Zenoz zeritzaison Ultzamar batek ikasitako batzuk :

1. *Habla y no tiene boca, anda y no tiene pies; no acertarás aunque estés un mes* (1). Aezkoan ikasi nuen-igarkizun baten erdia da onen zati bat :

*Mintzatzen da ta miik ez,
badabila ta zangoik ez,
eluña bezala zuri
eta bikea bezain beltz.*

2. *Blanco por dentro, verde por fuera; si quieres que te lo diga, espera.* Baditeke au ere euskeraz, bainan osotxoago, nonbait erabiltzea.

3. *Ave tengo por nombre, llana por condición; si no aciertas, eres un gran borricón.* Igarkizun au enura gabe, ezbaitzaka, euskeraz ezta inon esaten.

4. *Cuatro andantes, cuatro manafuentes, dos tururús y un dale dale.* Igarkizun au beiarena da. Euskeraz berdintsu darabilgu : *lau titiriti, lau tatarrata, bi espalangañi, isipua ta manta.*

5. *Sábana blanca, de hilo no, todo lo cubre y el agua no.* Ikasmentxo onen irugařen esaldian era-kutsi dugu igarkizun auxe berau euskeraz : *mandre bat, arizkoa ez... eta abar.*

6. *Una señora aseñorada, siempre va en coche y siempre mojada.* Mingainaren igarkizuna agertzean Ordizia (Gipuzkoa)-ko aldakuntze bat ikusiko du irakurleak, erderazko auxe berau : *señorita bat, beti koxean, beti busitá.*

(1) Abauřepean onela efaten da : *habla y no tiene boca, anda y no tiene pies: adivina lo que es.*

XV. Euskalari izan ezařen, euskalzale zератен irakurleok, adi zaitezte ta entzun ezazute euskalari urtetsu onen eskaritxq au : sar zuen begietan banan banan ta astiro nik nekez bildu izan ditudan igarkizun auek eta, berok ikusita, alderen batzuetaik igoriko dizkidatenak. Zuen seme-alabarik edo beintzat ondorengorik naiz magalpekorik (protegidos) bat ere ez-pedi izan pitxi auek buruz ikasi gabekorik. Bizi bitez geranon (guzion) buru-biotzetan gure Ama Euskaleŕia (bear bada itsasondaratu baino ere lenagotik) beronen erajetan dituen igarkizun auek.

Bilbon, 19-X-1925.

R. M. AZKUEK.

II. 186 IGARKIZUN

1. *Aguratxo pospolin,
bostizar ta bost agin.*

Ancianito saltarín, cinco barbas y cinco dientes.
(Ermua, Oñate).

2. *Aita baino lenago yaio, amak baino lenago
ugatza artu, mundu guztiko lagunen laurenari bizia
kendu ta azkenean bere amaren eŕaietan lurperatua
izan.* Nacer antes que el padre, amamantarse antes
que la madre, quitar la vida a la cuarta parte de las
personas de todo el mundo y por fin haber sido sepul-
tado en las entrañas de su madre. (*Euskalzale*. I-208).

¿Igarkizun au yatorízkoa oteda? eŕiarena?

3. *Aita beltz, ama latx, umea txuri.* Negro el
padre, áspera la madre, blanco el niño. (Otxagabia:
Saraitzu).

Onen antzekoa da Laŕaunen ikasi nuen au :

Aita latza, ama beltza, alaba zuria.

Gaztaina-morkotxa zela esan zidaten.

Saraitzun berean, eztakit ordea zein eritan, onela
eman zidaten :

*Aitara latx, amara beltz, emagina gorri eta aurá
xuri.*

4. *Aita latz, ama beltz, laŕua gorri, umea xuri.*
Áspero el padre, negra la madre, roja la piel, blanca
la cría. (L?).

5. *Aita luze, ama latz, umea baltz.* Largo el pa-
dre, áspera la madre, negra la cría. (Aezkoa, Ullzama).

6. *Aitsotxu urdin bat egun ortzakin.* Una anciana de cabeza cana con cien púas. (Saraitzu : *Euskal-Esnalea* VII-140).

7. *Altu altutxu karakolean, iru kapatxu soinean.* Muy altito en caracol, tres capitas en el cuerpo. (Murelaga, B).

8. *Altu-altuan yoan da okakia
zeinbat ume ainbeste abia.*

Muy alto ha ido..., cuantas crías tantos nidos. (B. Murelaga).

9. *Egunero aragia yan ta aŕatsero ate-xokoan lo.* Comer carne cada día y cada noche dormir en el rincón de la puerta (Bera (a) Vera del Bidasa).

10. *Ama zango-makur; alabara eder eta semea dantzari.* La madre zamba, la hija hermosa y el hijo danzante. (Saraitzu. *Euskal-Esnalea*, VII-108).

11. *Andre zabal bat bi geríkoz inguratrik.* Una señora ancha rodeada de dos fajas. (Saraitzu, *Euskal-Esnalea*, VII-140).

12. *Amiña zar bat, ipurdian txostaka batekin.* Una vieja abuela con un palillo en el trasero. (Otxagabia : Saraitzu).

13. *Han salto, hemen salto, María nimíño beltz.* Salto allí, salto aquí, Mariquita la negrita. (L).

14. *Antxuan xuri, bildotxeán gorri, ardian beltz.* En época de recental, blanca; roja en época de corde-ro; en la de oveja, negra. (L).

15. *Aragian barnean atora ȝzer da?* Dentro de la carne la camisa. ¿Qué es? (R. Uztarotz).

16. *Ara ta ona, eutsi ta tati erabilten dabena.* Lo que suelen mover allá y acá, toma y *tati* (Véase Diccionario V-E-F). (B. Murelaga).

17. *Arbola-kaskorik gorenera igan ta ugalterik txikiiena pasatu ezin.* Sube a la copa del árbol más alto y no puede atravesar el río más pequeño. (Aezkoa).

18. *Arbolarik andienari igongo leuskiona ta eŕekarik txikiiena igaroko eleukeana.* Que subiría al árbol más grande y que no pasaría el arroyo más pequeño. (B. Murelaga).

19. *Arbole batek amabi adar, adar bakotxak zazpi aroltze.* Uu árbol (que tiene) doce ramas, cada rama cuatro nidos, cada nido siete huevos. (Itzaltzu : Saraitzu).

20. *Ardi mandika-xabal, gastigar adar.* Oveja de ancho vientre, rama de arce (Otxagabia: Saraitzu).

21. *Arka zuri bat ponpolinatu, giltzik bage dezerajatu.*

Un arca blanca, lindísima, descerrajada (abierta) sin llaves. (AN, Eaurta : Saraitzu).

Otxagabian (Eaurtak bi orduko bidean) onela eman oi dute igarkizun au :

*Arka pompoñoniko
giltzik gabe dezerajatuko,*

Saraitzuko ibaíean *ponpolinatu* erderazko «acicalarse»-ren zentzunean entzun dut; *ponporóniko* bein ere ez, igarkizun onezaz landa.

22. *Artz bat egun guzian kaka egiten ta añatsean bere kakarekin bere burua tapatzen.* Un oso produciendo escremento todo el día y a la noche cubriéndose con el suyo. (Eaurta : Saraitzu).

Antoine d'Abbadie-ren lantxoren batean irakuí bi-dedut igarkizun onen antzeko bat.

23. *Astoan burua sartzen eta gari-bikorá ez.* Mete la cabeza en el burro (?) y no el grano de trigo. (Otxagabia: Saraitzu).

24. *Axuritan xuri, bildotsetan goři, arditan beltz.* (Ulzama). *Axurian zuri, antzuan goři, ardián beltz* (Saraitzu).

Ikusi 14-gařen igarkizuna.

25. *Atofarà barnetik eta aragia kanpotik.* La camisa por dentro y la carne por fuera. (Otxagabia: Saraitzu).

26. *Atoñarearen izuña baino izurágo ta amar ta erdikoa* (1) *baiño txikiago.* Más fruncido que los frunces de la camisa y más pequeño que la moneda de diez cuartos y medio.

27. *Atso zar bat eun ortzekin.* Una vieja anciana con cien dientes. (Laŕaun, Saraitzu).

28. *Atsa bai ta korputzik ez.* Tiene aliento y no cuerpo. (Otxagabia: Saraitzu).

(1) Zilafezko diru txikitxo bat zan au, efealekoa bezalatsukoa.

29. *Atso buru-urdin,
mila deabruk erman din.*

Anciana de cabeza cana, mil diablos la han llevado. (Otxagabia: Saraitzu).

30. *Atso zar bat saiets-ezurák agerian.* Una vieja anciana mostrando los huesos del costado. (Eaurta: Saraitzu).

31. *Atxo xahar-xahar bat ezpain makhur batekin.* Una anciana muy vieja con un labio torcido. (BN? L).

32. *Atzean pozua ta auŕean moltsoa.* Detrás pozo y delante estropajo. (B. Murelaga).

33. *Aur bat iru geŕikoz inguraturik.* Un niño con tres fajas enfajado. (Eaurta: Saraitzu).

34. *Balio ez yateko ta ain barik ezin bizi.* No vale para comer y no podemos vivir sin él. (B. EUSKALZALE I-160).

35. *Basoan yaio ta basoan azi,
eŕegen salan dantzan asi.*

Nació en la selva, crióse en la selva, en la sala del rey empezó a bailar. (EUSKALZALE I-95). Murelaga *Basoan yaio ta basoan azi, eŕegen salara yoan ta pasietan asi ikasi nuen.*

36. *Basoan yaio, basoan azi,
etira etorrita bera nagosi.*

Nació en la selva, crióse en la selva, vino al pueblo y se hijo jefe. (EUSKALZALE I-95).

Auxe da Bizkaian beintzat igarkizunik entzune-na. Juan Carlos de Guerra jaunaren *Viejos textos del idioma-n* 250-1 auxe berau irakurí dut, *nagosi-ren* ordez *nausi* yañita.

37. *Basoan yaio, basoan azi,
etxera etorítia lau geriko yantzi.*

Nació en la selva, crióse en la selva, vino a casa y se ciñó cuatro fajas. (B. Murelaga).

38. *Basoan yaio, basoan azi,
etxera etorítia txizaginen asi.*

Nació en la selva, crióse en la selva, a casa llega y a orinar empieza. (B. Murelaga).

Durango-gainean, Garay deritzaion basaurian *txiz egiten* esan oi dute.

39. *Basoan yaio, basoan azi,
etxera etorítia (1) zuririk yantzi (2).*

Nació en la selva, crióse en la selva, a casa llegó y de blanco se vistió. (B. Lezama, Murelaga, G. Oñate. EUSKALZALE I-95).

40. *Basora doanean, etxera begira;
etxera datorénean, basora begira.*

(Arakil, Ordizia, Ulzama, Urdiain). EUSKALZALE I-111.

41. *Bethi leihoréan eta bethi bustia.* Siempre en seco (en tierra) y siempre mojado. (L).

(1) Batzuk *yauregiratuta*, beste batzuk *egegen salan*.

(2) Norbaitzuk *zapi zuria yantzi*. Beste batzuk *danak* (sic) *bera adoren* *asi*.

Beti kotxean ta beti bustirik esan oi da Arakil-en (AN). Gipuzkoako Ordizian: *señorita (?) bat beti kotxean, beti bustita.*

42. *Bi hagen gainean trunko bat, trunkoaren gainean mendi bat, mendiaren gainean xara bat eta xararen artean ardiak alha.* Sobre dos vigas un tronco, sobre el tronco una montaña, sobre la montaña un jaro y dentro del jaro pacen ovejas. (L).

43. *Bi aizpa egun guzian alkaří atzaparka ta bein ere ez odolik egingen.* Dos hermanas Arañándose todo el día y nunca se hacen sangre. (Eaurta: Saraitzu).

EUSKAL ESNALEAK V-92 Z. Gañalda Saraitzaŕak igoŕitako aldakuntze au dakar:

Bi aizpa akaŕean eta sekula ez odolik egiten. Garda dela dio (ez gardak) eta Saraitzun oi denez gardara mugitz (artikulu) ta guzi esaten da.

44. *Bi malkoŕen erditik idi bat oroz.* Por entre dos rocas mugiendo un buey. (AN-Arakil).

45. *Bi tuturutu, laur tatarata,*
istupa, amuko eta ardatza.

Dos *tuturutus* (¿cuernos?), cuatro *tataratas* (¿pezones?), estopa, copa y huso. (Otxagabia: Saraitzu).

Beste batek Otxagabia berean *bi tuturutu-ren ordez irur titiriti* esan zidan.

46. *Biribila erein, luzea etara;*
gogorá sartu ta biguna etara.

Sembrar redondo, sacarlo largo; meterlo duro y sacarlo blando. (B. Máguna).

47. *Biribilean trongo, luzean Bilboragino.* En redondo ¿tronco?, en largura hasta Bilbao. (B. Murelaga).

Lekeitioen *luzean Gernikaraiño* entzun izan dut.

48. *Bizia tiraka, ila negaŕez.* Tirando el vivo, el muerto llorando. (B. EUSKALZALE I-280).

49. *Borz aizpa laisterka bata berzearen atzean, eta sekula ez aŕepatzen* (1). Cinco hermanas corriendo una tras otra y nunca se cogen.

50. *Bost bizar ta bost ezur ta gainetik soineko goŕia.* Cinco barbas y cinco huesos y por encima vestido encarnado. (G. Amara, Oyarzun).

51. *Burua buruko, geŕia geríko, eperdia zakuto.* La cabeza cabecita, la cintura cinturita, el trasero saquito. (B. Euskalzale I-392).

Murelagan *buruan buŕiko* (?), *gerian geríko, eperdian zakuto* esan zidaten.

52. *Buruan buŕundela, gerian gaŕandela, iperdian kaŕapizela.* En la cabeza el zorongo, en la cintura cinturón, en el trasero agujeta con perlas. (B. Euskalzale I-272).

Iru itz auek (*buŕundela, gaŕandela ta kaŕapizela*) enituen Iztegian sartu, zarata utsezkoak eta zentzun gabeak ziralakoan. Murelagoko seme J. M. Alkorta-k yakin arazi dit beren zentzuna.

53. *Burdiaik ibilteko bear eztuana ta ala ere hura gabe ibili ezin dana.* Lo que el carro no necesita

(1) Z. Gafaldak EUSKAL-ESNALEAN V. 92 sekula ez aŕepatzen batak berziari (???) ezarri zuen.

para andar y que sin embargo no puede andar sin él.
(G. *Euskalzale I*-232).

Mendaroko apaiz ta euskalari entzutetsu Uŕuzunok
bidalia.

54. *Egunoroz itzuli
bi taulaz estali.*

Volverlo cada día, cubrirlo de dos tablas. (AN? G?).

55. *Egunaz eskilara ta gabaz palanka.* De día
escalera y de noche palanca. (B. Murelaga).

Norbaitek *Euskalzale-n II-343 egunaz mailadi,*
gauaz aga esan zuen.

56. *Egunaz kako ta kako, gauaz sendo ta sen-
do.* De día gancho y gancho, de noche largo y largo.
(B. Laukiniz, Txorierri).

Norbaitzuk Bizkaian *sendo ta sendo-ren ordez
luze ta luze esan oi dute.*

57. *Egunaz khantaz, gabaz lo dagona.* Que
canta de día y duerme de noche. (L).

58. *Egunaz zulubi eta gabaz haga.* De día es-
calera y de noche palo largo.

Vinson. *Les basques et le pays basque.* 136.

59. *Eluŕia bezin zuria,
ikatza bezin beltza,
yendeak bezela itz egin,
yendeak bezela yoan.*

Tan blanco como la nieve, tan negro como el car-
bón, habla como las gentes, como las gentes marcha.
(AN-Araitz).

60. *Emakumak berba gitxien egiten daben ilā.*
El mes en que menos hablan las mujeres. (B. *Euskalzale I-344*).

61. *Eneukanean emon neutsun, orain badaukat eta ekazu.* Cuando no lo tuve os lo di, ahora lo tengo y dádmelo. (B. *Euskalzale I-294*).

Ezin ulertu dezaket igarkizun au.

62. *Eregeren aitzinean igaraiten, umajerik egin gabe.* Pasa por delante del rey sin rendir pleitesía. (*Cerquand...*).

63. *Erekan behor xuriā.* En el arroyo yegua blanca. (L.).

64. *Erekarik andiena busti bârik igaroko leukeana.* Que podría pasar sin mojarse el más grande arroyo. (B. *Murelaga*).

65. *Hertsirik makhila eta hedaturik teilatua.* Cerrado (es) palo y extendido tejado. (L. *Vinson Les basques. 136*).

66. *Esia esiaren gainean.* Seto sobre seto. (Otxagabia : Saraitzu).

67. *Etxe bat zuria, bazterik ez;*
atarri eta leioik, frankarik ere ez.

Una casa blanca, sin rincones; no tiene portal y ventanas, ni tampoco tranca. (AN-Aezkoa).

Aezkoan berean: *Etxe bat zuria, eskinik gabea;*
ataririk eztu ta leiorik ere ez.

68. *Etxeko yaun ezpain-handi.* El señor de casa abultado de labios. (L.).

69. *Etxeko seme zaén zaénenak ezpeina makur.*
El hijo mayor de casa (con) el labio torcido. (Aezkoa).

70. *Etxen̄ isilik, oihanean kankaz.* En casa ca-
llando, en la selva voceando. (Zuberoa).

71. *Etxetik oianera-bidean isil-isila, oianeau
oiuka.* Muy silencioso desde casa camino de la selva,
en la selva cantando. (Aezkoa).

72. *Etzanik dago: yagiko balitz, zerua yoko
leuke; éskuak baleukaz, lapurak atxitu; berbetan
baleki, guztia esan.* Está tumbado: si se levantara,
tocaría el cielo; si tuviera manos, cogería ladrones;
si supiera hablar, diría todo. (B. *Euskalzale*, I-288).

73. *Eun eun aztari
bi zeñolez estali.*

Euskal-Esnalea-n V-92. Z. Gafalda Saraitzuko
semeak aldakuntze au erakurtsi zuen:

Egun egun ostoari (?) , bi zeñolez estali.

Cien y cien bodegas, cubiertas con dos tablas.
(Otxagabia: Saraitzu).

74. *Ehun adar, beréun adar,
Martín punta-latz.*

Cien ramas, doscientas ramas, Martín de puntas
ásperas. (L).

75. *Eun badere, beréun badere,
denak ipurzuriak. ¿Zer dere? (1)*

Cien son, doscientos son, todos de trasero blanco.
¿Qué son? (Laŕaunen).

(1) *Dire.*

76. *Eun dira, beñeun dira,
guziak uzki-zuri dira.*

Son ciento, son doscientos, todos son de trasero blanco. (Otxagabia: Saraitzu).

77. *Eun oři, beñeun oři,
Martin zankagoři.*

Cien hojas, doscientas hojas, Martín zanquirrojo. (AN. Oskoz eta Laŕaun).

78. *Eun zulo, beñeun zulo,
Martin ipurzulo.*

Cien agujeros, doscientos agujeros, Martín de trasero agujereado. (AN. Oskoz).

Arakil-en *aun zulo, beñaun zulo, Martin ipurzulo* esan zidaten. Inguru aietan ta Bizkaiko batzuetan *eu-ren ordez au* esaten da: *aula = eule, naure = neure...* eta abar.

79. *Ganbara xuri brodetan gakorik gabe zerátu.*
Cinco blancas cámaras bordadas se encierran sin llave. (L).

80. *Sekula izan ez izanen eztena.* Lo que no ha sido nunca ni será. (BN).

81. *Gela bete aizkora.* Aposento lleno de hachas. (Arakil, Ondaŕoa).

82. *Gelatxo eta gelatxo,
gelatxo batean damatxo.*

Aposentillo y aposentillo, en cada aposentillo una dama. (L? Demófilo, 8).

83. *Gelatxu ta gelatxu,
gelarik aina damatxu.*

Aposentillo y aposentillo, tantas damas como aposentillos. (B. Txorieiri, *Euskalzale*. I-80).

84. *Giltzak gerian, horak sutegian.* Las llaves en la cintura, los perros en la fragua. (Oihenart).

85. *Gizon aundi batek buruan ule bakaŕa.* Un hombre grande pelo único en la cabeza. (Olaeta en A).

Garai deritzaion basaurian, Durangaldean, onela entzun nuen : *gizontxo bat, buruan uletxo bakar bategaz.*

86. *Gizon bat anka-bakaŕa ta bera makuŕa.* Un hombre de pierna única y ella torcida. (AN-Arakil).

87. *Gizon bat lerden-lerdena bürǖ-gainean bilho bakhoitz bateki xüt-xütik.* Un hombre muy erguido, sobre la cabeza un pelo único tieso. (Zuberoa).

88. *Gizon ūpi, xapel-handi.* Hombre pequeño, de gran sombrero. (L).

Gizon ūki, fanfarun andi esan zidan Ulzamar batek. Igarkizuna gabe gesakunea (proverbio) ezoteda esakeratxo au?

89. *Gizon txikin bat irur gerikorekin.* Un hombre pequeño con tres fajas. (Otxagabia: Saraitzu).

90. *Goizean lau oinean, eguerdian oin bian eta aratsean iru oinean dabilena.* El que anda a la mañana sobre cuatro pies, al mediodía sobre dos y a la noche sobre tres. (*Euskalzale* I-103).

Ikus beza irakurleak Itzauŕean igarkizun onezaz esandakoa.

91. *Gona-motz, gingila-luze.* De saya corta, de úvula larga. (L. *Euskalzale II-343*).

(*Vinson-en Les basques 136-tik artuta*).

92. *Gure zamari xuria hegiz hegi ibiltzen.* Nuestra blanca acémila que anda de colina en colina. (L? Cerquand).

93. *Yan ta yan ta kakarik ez,
ipurdia bai ta zulorik ez.*

Comer y comer y sin excremento; trasero sí y no abertura. (Olaeta, Murelaga).

94. *Yaun bat bethi kaka egiten hari.* Un señor que siempre produce excremento. (L.).

95. *Yaun bat lephoareki eta bürü gabe, bi beso-eki eta zanko gabe.* Un señor con cuello y sin cabeza, con los dos brazos y sin piernas. (Cerquand).

96. *Ikatza baizen baltz ta edurá* baizen zuri, oinik eztauko baia guztiliz da ibiltari, miinik euki ez-ařen berba egiten badaki.*

Negra como el carbón y blanca como la nieve, no tiene pies ni piernas, y sin embargo se mueve; y aunque carece de lengua, charla siempre erre que erre. (B. Txorieí. *Euskalzale II-328*).

97. *Ikhusten dut, ondoan dut eta ezin atzeman.* Le veo, cerca le tengo y cogerle no puedo. (L).

98. *Inor bere eztabilen bidea ta guzzia (?) zein dan dakiena.* Camino por donde nadie anda y que de

todos (?) es conocido. Txistular ezizendun batek *Euskalzale-ri* igorri zion. (*Euskalzale I-392*). Eriarena oteda?

99. *Itsasoan edan eta bortuan pix egiten duena.*
El que bebe en el mar y orina en el desierto. (AN?).

100. *Itxean itxeko seme bat bakaŕa ta hura ez-pain-makurá.* En casa hijo único, y él de labios torcidos. (AN. Ullzama).

101. *Itxirik, makilea; zabalik, teilatua.* Cerrado (es un) palo, abierto un tejado. (B. *Euskalzale II-351*).
¿Eriarena eteda?

102. *Ithuŕira edatera yoan ta ez edan.* Ir a la fuente a beber y volver sin haber bebido. (L).

103. *Ithuŕiratekoan etxerat so eta etxelatekoan ithuŕira.* Al ir a la fuente mira a casa, y al volver a casa mira a la fuente. (L).

104. *Ithuŕiratekoan iriz eta etxeratekoan nigarez.* Riendo va a la fuente y vuelve a casa llorando. (L).

105. *Juun ta juun eta Getari, oltxo birekin estali.*
Ir, ir y Guetaria, cubrirlo con dos tabletas. (G. Uretxu).

106. *Kanpora doaielaik, iriz; itxera datolaik, negarez* (Ullzama).—*Kanpora diela, faraz; etxera datoŕela, negarez* (Laŕaun). Yendo al campo se ríe, viniendo a casa llora.

107. *Kanpora dijoanean etxera begira, etxera datoŕenean kanpora begira.* Cuando va afuera mira

a casa, cuando viene a casa mira afuera. (AN-Laíraun, Imotz).

108. *Kenduaz azi ta geitutene dana.* Lo que crece con quitar. (B. EUSKALZALE 5-136).

109. *Konbentu barne batean LAUR aizpa.* En el interior de un convento cuatro hermanas. (Saraitzu : Euskal-Esnalea VII-140).

110. *Konkon biribil...* Con-con redondo... (Otxagabia : Saraitzu.)

111. *Koskiñ-koskiñ argiñe
pareta-zuloan sorgiñe.*

(AN).

112. *Kupela batean bi ardo-jenero (?)*. En un tonel dos clases de vino. (AN : Ulzamá, Arakil, Laíraun).

113. *Kutxa txiki bat aizkoraz beterik.* Un pequeño cofre lleno de hachas. (AN : Arakil, Urdiain.)

Ordizian (Villafranca Gipuzkoakoan) onela entzun nuen : *kutxa txiki bat iltzez beteta.*

114. *Kutxa txiki iltzatua
giltzik bage giltzatua.*

Pequeño cofre clavado, cerrado sin llave. (AN : Urdiain.)

Kutxa txiki tapatu, sarailik gabe giltzatu esaten da Laíraungo Baraibařen.

115. *Kutxa txiki palanka, txingo txingo biribil,
uren ganean dabil.* Cofre pequeño palanca (?), chingo chingo redondo, anda sobre el agua. (B: Lekeitio).

116. *Kutxa txiki tapatu,
saŕailik gabe giltzatu.*

Cofre pequeño cubierto, sin cerraja cerrado. (AN : Laŕaun).

117. *Labea bete aizkoldo.* Horno lleno de hachas pequeñas. AN : Uitzi (Laŕaun.)

Labea bete aizkora txiki diote Laŕaungo Barai-barén.

118. *Labearen gainean ximinea, ximinearen gainean leihoa, leihoen gainean pentzea, pentzean ardiak alha.* Sobre el horno (hay) chimenea, sobre la chimenea ventanas, sobre las ventanas prado, en el prado pacen ovejas. (L).

119. *Lapikoan sartu ta egosten dana eta yaten dogunean ikusten eztana.* Lo que metido en el puchero cuece y no se deja ver cuando comemos. (B EUSKALZALE I-173).

120. *Laŕain biribila, esola txuriz ertsirik.* Era redonda, cerrada de blanca empalizada. (AN: Ulzama)

121. *Laŕua barnean eta aragia kanpoan.* La piel dentro y la carne fuera. (L).

122. *Lau titiriti, lau tatarata
bi espantagaŕi, isipua ta manta.*

Cuatro titiritis (pezones), cuatro tataratas (??) dos espantajos, hisopo y manta. (AN : Arakil, Urdiain).

123. *Lau dama saŕaila gabeko kutxan.* Cuatro damas en un cofre sin cerraja. (G : Beizama).

124. *Lau aizpa beti lasterka, bata bertzearen atzean eta sekula ez aŕapatzen.* Cuatro hermanas siempre corriendo una tras la otra y nunca se alcanzan. (AN : Saraitzu.)

Igarkizun auxe da Euskaleŕian zabalduna, beintzat zabalduenetako bat. Aldakuntzeak ere baditu ta ez guti. Ona batzuk :

1.^a *Laur aizpa elkarén atzetik beti laisterka ta batak bertza ezin erdietsi.* (AN : Aezkoa).

2.^a *Laur aizpa beti lasterka eta ioiz ez aŕapatzen.* (AN : Otxagabia: Saraitzu).

3.^a *Lau dama beti lasterka alkarí yaŕaika ta bein ere ezin alkar aŕapatu.* (AN : Ulzama, G.)

4.^a *Lau damatxo alkarén segi, bat erdian ta ezin irutzi.* (AN, Olazagutia).

5.^a *Lau monja bata bestearren atzetik eta alkar ezin aŕapatu.* (AN, Arakil).

6.^a *Dira lau neskatilatxu, beti alkarén atzean ta ezin alkarí ikutu.* (J. C. Guerra: *Viejos textos del idioma*. 259-10).

7.^a *Gefí batean lau dama, denak elkarí segi ta bein ere aŕapatzten ez.* (Laŕaun).

125. *Laur ithurí mendi baten azpian.* Cuatro fuentes bajo una montaña. (L.)

Batzuk zubi baten azpian esan oi dute. Antzuolan (G) onela esaten da: *Guardasol baten azpian lau damatxo bein ere bustitzen eztireanak.* Cuatro señoritas bajo un paraguas, que nunca se mojan.

126. *Laur beharí, sabela egarí.* Cuatro ovejas, sediento el vientre. (L?)

127. *Laur titiriti, bi tatarata, urkila eta histupa.* Cuatro *titiriti* (pezones), dos *tatarata* (los cuernos), horquilla y estopa.

Beia la vaca. (L. Vinson. *Les basques*, 136).

128. *Lauza andi baten pean laur iturí.* Bajo una gran losa cuatro fuentes. (AN : Itzaltzu en Saraitzu).

(Trait satirique à l'adresse de conseillers municipaux, ou autres, peu intelligents. Il se rangent invariablement à l'opinion des autres).

215.—Urthian behin da Bazko (C).

(Terme opposé à de trop fréquentes prétentions).

216.—Jaten den lekhian aza eta arbi, ez daiteke izan etche gibela garbi.

(Régime laxatif).

217.—Gero duk bihar (BNC).

(Menace réfléchie. Intelligenti pauca.—Le Bas-Navarrais n'aime pas déférer à la Justice un méfait qu'il a subi. Il attend patiemment l'heure de se faire justice. C'est pour lui le cas de dire, ou de penser: Gero duk bihar.

218.—Suduá pika eta odola ahorat (C).

(On est sensible à l'injure faite à ses proches. Le français dit plus vulgairement: Qui frappe le chien, frappe son maître).

219.—Lehembiziko basoa kharioenik (BNC);

(Des hommes sobres deviennent intempérants, dès qu'ils ont commencé à boire.)

220.—Hasian hasi (LC).

(Des hommes discrets, une fois mis en train, perdent toute mesure). (Voir le n.^o précédent).

221.—Has edo ez has (LC).

(Même signification qu'aux numéros 219, 220).

222.—Indak x'ika bat, emeen haut arima (L côte). (Sic).

(Passion du matelot pour la chique. N'a-t-on pas vu, qui acceptent, sortant du bérét, ou de la bouche d'un copain, un morceau qu'ils chiquent avec délice).

223.—Patxiku neria, bakhotx'ak behar du beria (L côte-frontière).

(Dit avec ménagement, mais exactement: Cuique suum).

224.—Aphezak azken hitza bere (LC, BNC).

(Ce qui a lieu notamment à la suite du Sacrement de Pénitence.—C'est aussi le «Nobis quoque peccatoribus.—Le prêtre ne se doit-il pas d'être poli, mais positif).

225.—Kanderail'u bero, negia dugu gero (C).

(Pronostic que l'on croit fondé).

226.—Kanderail'u hotz, negia joan da botz (C).

(Voir le n.^o précédent).

227.—Biba Bachenaba! Kuku Lapurdi! Achut!

(Défi dans la nuit).

228.—Dagoena buru handi; dabilana sabel handi (BN am).

(Voir le n.^o 1, ainsi libellé. «Orotan antzara, bere mokoz alha»).

229.—Edeáretarik atheratu (LC).

(Funditzeko men menetik).

230.—Bilo batek ez dik egin (BNC).

«Il s'en est fallu d'un cheveu», dit le français.

(Voir le n.^o précédent).

231.—Zer bihotzeko zaŕasta (C).

(Emotion subite et profonde).

232.—Besoen betheko muthikoa (LC).

(Edeára eta zabala).

233.—Gosiak hil (C).

(Mort de faim.—Se dit au propre et au figuré).

234.—Egariak itho (C).

(Peut-on donc se noyer sans eau? Sans doute, dans le sens du mot basque: par suffocation, par asphyxie, par strangulation).

- 235.—Ez dut damia baño desohoria handiago (BNC).
(Paroles qui accompagnent une confidence, un aveu).
- 236.—Lasterik egin gabe, behar dik atzeman (C).
«Rien ne sert de courir; il faut partir à point». (Lafontaine).
- 237.—Ez iratzar-araz lo dagoen zakhura (BNC).
(Bere buruaren hiriskutan ematea laiteke).
- 238.—Kukuak makhur jo dio (LC).
(S'il chante hors de son temps, c'est un renversement de saison. Par analogie, comme ici, c'est dire d'un particulier que ses affaires ont tourné mal).
- 239.—Aho zeñatian ez da ulirik sartzen (BNC).
(Behaéan denak, behar du galdetu. Petite et accipietis, dio Ebanjelioak).—Analogie tirée des petits animaux domestiques, chiens, chats, volailles.
- 240.—Dozenan hamahirur (C).
(Gauza baliosik ez).
- 241.—X'itx'i-papetan (Espelette).
(Bertzetaz hazia eta madolatua izatu dena, behartzen denean bereaz egiten hasi, hartaz eíaten da: «Ez da x'itx'i-papetan orai; lehengo arnoen urak, orai edan beharko ditu»).
- 242.—Hogoita hameka eta esku (BNC).
(«Hogoita hameka eta esku» badituela eíaten da, behar izaturik, aberastu den batentzat; hauzitan gudukaturik, hauzia irabazi duen baten-tzat, eta bertze holakotan).
- 243.—Ez duk hauzo guzien behar (BNC).
(Voir le n.º précédent).
- 244.—Arotzaren etx'ian. kapitx'aliak zurez (BN).
(Lazokeriaz edo ezinbertzez).

245. — Andre Maria martxoko, behia larrian aseko
(LC).

(Pronostic, touchant la saison).

I

LÉGENDE RELATIVE AU N.^o 210

Familia saindua Ejiptorat zohan, Herodesen ihesi. Bainan zainduak ziren bideak, mugak hertsiki begiratuak.

Ejiptorako mugatik hurbil, Josep eta Maria zohazin bidean, edireiten zen emazteki bat jitanotarik. Baitzakien egunaldi hetako berri, gogoak eman zioen, Josep eta Maria, beren haur bat begiratu nahiz, Ejiptorat zohazila.

Hurbildurik bada, eraten dio Mariari:

«—Ezagun dun, itchura haritu hortarik, hor haur bat badaramakanala. Ezagutua hindeke. Indan niri haurá; jakiñen diñat zer egin...»

Hartu zuen bada haurá, eta zein bere alde bazo-hazin,

Hurbildu zenean, mugazain buruzagiak egiten dio emazteki jitanoari:

«—Altzo hortan zer dun?

«—Altzo huntan zer dutan? Oraiko egunean, zer izan zezakeiat? Haur batt...»

«—Hoa hortik, hoa here bidean. Hala bahu, ehezake hala erán.»

Emaztekiak egin zuen bide. Salbu zen haurá. Ama samuñaren bihotza sosega zaiteken.

Hortarik zauku zilhegi, diote jitanoek, egunean bortz soseko edo ereal baten, edo hořen balioko zerbeiten gutienetik ebastea.

Zembeit gure heritarek, erankizun hori, Ebanjelio-ko egiazat dadukate!

II

**DEVINETTE, RELATIVE AU N.^o 211
CI-DESSUS**

Zer da, zer izate da, lehenik lau zangotako, gero bi zangotako, eta azkenean hirur zangotako?

Hura da gizona.

Hastetik ezen, edo zein haur, potikoka, edo zembeit eskualdetan diotena, gathuka, hori da lau hatzen gainean, eskuz eta zangoz bermatuz, tokiz aldaratzenda; eta orduan lau zangotako da;

—gero, hazkar eta sendo, bere harahunatak, lasterkak, salto edo jauziak, bi zangoen gainean derabiltzka, eta orduan bi zangotako da;

—azkenekotz, aski zahartzen delarik, harahunakatzeko, makhil'o bat hartzen du; hirur zangotako da.

Eta azkenekotz, ez othe zaio eman behar izaten esku chutitzeko, beso tokiz aldatzeko; ez othe da etzateko, jeikitzeko, ahorat jan edanaren emateko, lagundu behar?

Hortan da, 211 gařen atsotitza: *Zahaŕago, behaŕago*, egiazko gerthatzen.

LANDEŘETXE.

EUSKALTZAINdia'REN

SEIGAŘEN URTEKO BATZAŔAK

Donostia 'n, Gipuzkoa 'ko Aldundi-Jauregian,
1924 'ko Oñila 'ren 27 'an.

Batzar ontara euskaltzain abek datozi : Azkue mai-puru, Kanpion, Urkijo, Landetxe, Eguskitza, Olabide, Altube, Intzagarai, Intza ta Lakonbe. Urgazlerik batez. Otoitzez asi da batzaŕaldi au.

1. Aita Intza'k esaten du : Iruña'ko euskal-apai-zgayak udarako opor-egunetan euskeraren alde lan egin nai dutela ta ontarako Aita Intza'k berak gai batzuek eman dizkie: Napañoa'ko toki-izenak leŕo-leŕoka jaŕi; eri aben inguru diran loreen ta landareen izenak ta ume-jolasketak. Euskaltzaindiak onetsi du.
2. Eguskitza jaunak *Lelo-ren* abesti edo eresia ederki aztertu-ta dákari, bere iritxiaz, apalди bakoitzak zer esan nai duen edo itzen ikurpenak egoki erakutsirik. Gogoz entzun dute euskaltzaiñak Eguskitza'ren lan au ta tarterako oar batzuek ipiñi dizkio lan oferi Urkijo jaunak.
3. Azkue jaunak bere *Morfología irakurri* du.
4. Irakurpenaren txolarte batean, Urkijo jaunak dio, iztegian ez dauden itz zaar edo berriak edo egoki deritzazkigun idazle-itzak leŕoz ekari-ta, Euskaltzain-

diak aztertu bear litukela, onesten diranak lenbailen iztegian ezaŕi ditezen. Onetsi du Euskaltzaindiak.

5. Ganera, Iruña'ko apaiz-gaien udara-lanetarako *fichero* bat gertu bear zaiela esan da, oŕela beren lana askoz eŕezago egin dezaten.

- Ta beste gai batzuek bigaramonerako laga-ta amaitu da batzaŕaldi au.

Donostia'n, Aldundi-Jauregian, 1924'ko Oŕila'ren 28'an.

Auŕeko batzaŕean aipatzen diran euskaltzain berak datozi, Azkue maipuru dala.

1. Odon Apraiz jaunaren idazki luze ta mamitsu bat irakurí da ta Euskaltzaindiak gogo aundiz entzun du.

Apraiz jaun beroni Bidaso-aruzko *Erizkizundi* lana emango zaio, baldin berak ontzat artuko baligu.

2. Erabaki da: Gure *Euskeraren suplemento* edo oŕiordeko bat argitaratzea, gayak gañezka datozerako.

3. Iruña'ko Seminarioko Eŕetore jaunak idaki batez Euskaltzaindiari esaten dio: euskaltzain bat edo bi ara bialtzeko, bertan izango diran euskalazterketa-rako. Ordeko izendatu ditu Euskaltzaindiak: aita Intza euskaltzaiña ta Irigarai urgazlea.

Ta beste gairik izan ez-da otoițez amaitu da batzaŕaldia.

**Donostia 'n, Gipuzkoa 'ko Aldundi-Jauregian,
1924 'ko Garagarila'ren 26 'an.**

Ona emen Batzañaldira datozañ euskaltzañak. Azkue maipuru, Urkijo, Landeñetxe, Eguskitza, Olabide, Intzagarai, Intza ta Lakonbe. Oitura danez otoiñez asi da batzaña.

1. Aita Intza'k Napañoa'n egin bear diran euskal-jai batzuen béri Euskaltzaindiari eman dio. Aita onek lan abetan darabilkien adore - pizkortasuna Euskaltzaindiak ezin uka lezake ta onegatik txalorik bañengoyenaren diña deritzaio.

2. Aita Intza'k berak iragartzen digu : Iruña'ko Seminarioan euskal-azterpen edeñak izan dirala ta bere aburuz, zorionik bikañena azaldu bear zaiela Eretore, Irakasle ta ikasle guzai. Euskaltzaindiak zorionaldi au ematea pozik erabaki du.

3. Berdin ere txalorik edeñena bereganatu du Jesus Arantzadi jaunak bere euskal-ikastoletan, euskal-azterpen onak azaldu diralako. Arantzadi jaunari ere zorionak Euskaltzaindiagandik.

4. Azkue jaunaren *Morfología* aurera eramateko diru pitin bat bear litzake. Oretarako baduela dirudi Bilbo'ko *Cultura Vasca*'k. Diru auxe irixteko *Marko Gardoki* jaunarekin itz egin bear da ta onen adiskide dan Balparda jaunari zerbañ adieraziko dio Euskaltzainburuak.

5. Bähr gure urgazle jaunak, Azkue jaunari idatzidionez, datoñen udaran euskal-lanetan jardun nai

luke. Euskaltzainburuaren aburua ontzat arturik Gipuzkoako *aditz-lana* egotzi zaio.

6. Azkue jaunak Odon Apraiz jaunari *presupuesto* bat eskatu dio, onek bear bezala Bidasoa aruzko *Erizkizundia* egin dezan. Apraiz jaunak ez du oraindik erantzun.

7. Eguskitza jaunak *euskal-izpiakereari* dago-kion lan eder bat irakurri du.

Ta beste gai batzuek bigaramonerako utzi-ta otoi-tzez bukatu da batzañaldia.

**Donostia 'n, Gipuzkoa 'ko Aldundi-Jauregian,
1924 'ko Garagañila 'ren 27 'an.**

Auñeko batzañaldian aipatzen diran euskaltzain berak datoaz, Azkue maipuru dutela.

1. Ortiz de San Pelayo jaunak, Amerika'tik bialtzen duen ezkutitza Irakurri da Euskaltzaindiari 100 peseta igoñiaz ta ango euskaldun artean gure alde lan egingo duela agintzen du. Eskeñak bialtzen zaizkio.

2. Iruña'ko Gobernadore jaunak, Napañoa'ko euskal-jaietarako ematen duen baimen-idazkia irakurri da.

3. Bähr jaunaren ezkutitz bat Euskaltzainburuak irakurri du.

4. Euskaltzain artean asko ta luze itz egin da : *ekarri du, dute... u oni dagokion aditz laguntzailea ukana* ala *edu* ala *eduki* ala zein beste ofedan. Ez da ezer erabaki.

5. Azkue jaunak Zigoitia'ko euskalkiak zer era tā taju dituen ederki adierazi digu.

Ta beste gairik izan ez-da ooitzez bukatu da batzaŕaldia.

**Donostia 'n, Gipuzkoa 'ko Aldundi-Jauregian,
1924 'ko Urila'ren 30 'an.**

Azkue jauna maipuru dutela euskaltzain abek bildu dira : Urkijo, Kanpion, Landeŕetxe, Eguskitza, Olabide, Intzagarai, Altube, Intza eta Lakonbe.

Ooitzez asi da, oitura danez, batzaŕaldi au.

1. A. Intzak beri abek adierazten diju : Iruña'ko egunari batek txalotzen ditu antxe izan diran euskal-azterketak, bai *Normal'an*, bai ere apaiz-ikastetxean. Seminario'ko ikasle batzuek euskal-lan politak egin dituzte joan dan udaran, Napaŕoa'ko toki-izen batzuek piloturik. Lanik edeŕena Narbarte'ko apaizgai batek egiña da. Euskal-lanak eri abei dagozkie : Egiaŕeta, Muzkiz, Araiza, Elizondo, Aŕiba, Azkarate, Atalo, Leiza, Zugaŕamurdi, Aldaz, Laŕaintza, Lezaeta, Zubietza, Bera, Uizi, Goriti ta Narbarte. Erabaki da : gazte langile abei, saritzat bezela, euskal-liburu batzuek ematea. Aita Intza berak esan digu : zer izan diran Napaŕoa'n egin diran euskal-jayak : Narbarte'n Lakoizketa'ren oroitarria azaldu danean ta Lekunberri'n. Azkeneko eri ontan itzaldi bikañak egin dituzte Oŕeaga'ko Abade edo Apaiz nagusiak eta gure Euskaltzainburuak.

Egintza atsegin aben beri gogoz eta pozik entzun zaio Aita Intza'ri ta entzun ondoren Euskaltzaindiak txalo beroak igortzen dizkio.

2. Aita Intza berak adierazi du : Narbarte'ko Alkate Jose Oteiza jaunak, ango umeai erakutsi nai die-la landare eta belaŕen ikasbidea, zein on eta zein txar diran jakiñarazteko. Nai luke Alkate jaun onek zer-baiten laguntza : edo liburuz edo beste gayez, al dan eŕexen gauza abek umeai erakusteko. Euskaltzain-diak beronek lezaken laguntza agintzen dio.

3. Euskaltzaindiak erabaki du : Orain artean ar-gitaratu diran eskola liburuak biltzea. Oŕetarako eus-kaltzain bakoitzak, bere alderdian idoro lezakena uŕengo batzaŕaldirako bekar.

4. *Euskeraren adiskidea'z.* Ez dira oraindik bil-du ta ez daukate, euskaltzainburuak dionez, biltzeko adorerik ere.

5. Urkijo jaunak Odon Apraiz jaúnaren oar bat-zuek irakuŕi ditu. Onek udaran egin duen lanaren adibide bezela datozen oar oiek. Lana Bidasoaz aruzko *Erizkizundi-Irukoitza'ri* dagokio:

Apraiz jaunak ez du nai izan bere lanaren saririk. Ematen bazaio, beste euskal-lanetan eralkiko duela dio. Euskaltzaindiaren eskeŕak.

Ta beste gai batzuek bigaramonerako utzi-ta otoi-tzez bukatu da batzaŕaldia.

Donostia'n, Aldundi - Jauregian, 1924'ko Urila'-ren 31'an.

Auŕeko batzaŕaldian bildu diran euskaltzain berak,
A. Intza ezik, datozen.

1. Azkue jaunak bere *Morfología* irakuŕi du eta

oñen irakurtz eta azterketan igaro da batzañaldi onen asti guzia.

Otoitza egin-da amaitu da batzañaldia.

**Donostia 'n, Gipuzkoa 'ko Aldundi-Jauregian,
1924 'ko Azaroa 'ren 21 'an.**

Egun ontan euskaltzain abek bildu dira : Azkue maipuru, Kanpion, Urkijo, Landéretxe, Eguskitza, Olabide, Intzagorai, Altube, Intza ta Lakonbe.

Otoitez asi da batzañaldia.

1. Aita Intza'k iragarí digu : Napañoa'ko euskaldunak laxter bilduko dirala euskal-lan batzuek eragiteko, emakumeak ere arazo ontara deiturik. Emakume aben buruzagi *Markesa de Besolla* deitzen dan euskal-andre agurgaria izan liteke, onen bitarbez, beste emakume asko efez sartu ditezen arazo ontan. Asmo utsa da oraindik gai auxe. Alaz ere, Euskaltzaindiak poz-pozik onesten ditu aita Intza'ren lenbiziko uñatz abek.

2. Bilbo'ko Udalak idazki bat igortzen digu esanik : Aurtengo Uriña'ren 7'an erabaki au artu zuela: a) Euskal-tzaindiari galdetu, nola erabaki ote lezaken euskal-ikastaroa; b) iragartzen digu lendik 12 irakasle dituela bere ikastoletan, bañan 4 naikoa zaizkiola auerantzean. Amabi irakasle oïetatik, lau aukeratu lezazkike Euskaltzaindiak, beroni egoki eta jakintsuak deritzazkionak. Amabietatik, iñor ezpalitz egoki ta diña, lau beri izendatzeko Euskaltzaindiari damayo eskubidea. Ganera onék esan bezayo Udala-

ri, zer arau ta zer ikasbide jaři lezazkiken ikastolefan, euskera ondo erakusteko.

Erantzun bear zayo Bilbo'ko Udalari: Euskaltzaindiak poz-pozik egingo duela euskal-ikastoletako araudia; ikastaroko małak, liburu, irakurgai ta abar. Irakasleak ordea, Udalak berak aukeratu lezazkikela, lengo amabietatik lau arazoan zařenak artu-ta, baldin abek egokiak baderitzazki. Bide au ez nai izatekotan azterketara edo oposiziora jo liteke.

3. Euskaltzainburuak esaten digu: Nazario Oleaga jaunarekin egongo dala, Bizkai'ko *Euskeraren adiskideak* alkar ikusi ta batzařaldi bat izan dezaten, gaur edo bigarko lanetarako gertu egoteko.

4. Euskal-ikastoletan bear liraken liburu batzuek, Euskaltzaindiaren mayean agertu dira. Abei dagokien txosten bat idatzi edo azaltzeko batzorde bat izendatuda : Eguskitza, Olabide ta Intzagorai. Bigarko ekaři lezateke.

5. Azkue jaunak bere *Morfología* irakuři du.

6. Aita Intza'k gure artera dakarzki : gure aldizkari *Euskeria*, irakuřgariago, bere iritxiz, eragin lezateken arauak. Euskaltzaindiak jaso ditu arau abek garaiz aztertzeko. Baita Landeřetxe jaunak ekaři dizkigu, gai ontan, berari dagozkion zuzenkunak ere.

7. Euskaltzaindiak agur egin nai dio Gipuzkoa'ko Aldun-Buru beríari. Ořetarako iru euskaltzain aukeratu dira : Azkue, Kampion ta Altube.

Ta beste gai batzuek bigaramonerako utzi-ta amaitu da batzařaldi au.

**Donostia 'n, Gipuzkoa 'ko Aldundi-Jauregian,
1924 'ko Azaroa 'ren 22 'an.**

Batzaŕaldi ontara etoŕi diran euskaltzaiňak abek dira : Azkue maipuru, Kämpion, Urkijo, Landeŕetxe, Eguskitza, Olabide, Intzagari, Altube eta Lakonbe. Oiturazko otoitza maipuruak egin du.

1. Euskaltzaindiak entzun dio ikastoletako euskal-liburuen batzordeari ta entzun ondoren auxe erabakidu : Bizkai-elez idatzita daudenak aztertu bitza Eguskitza jaunak; Gipuzkoeraz daudenak Olabideta Intzagari'ek.

2. Azkue jaunak bere *Morfología*'ren irakuŕpena jaŕaitu du.

Ta beste gairik izan'ez-ta otoitzez amaitu da batzaŕaldia.

**Donostia 'n, Gipuzkoa 'ko Aldundi-Jauregian,
1924 'ko Lotaziña 'ren 22 'an.**

Batzaŕaldi ontara euskaltzain abek datozi. Azkue maipuru, Kämpion, Urkijo, Landeŕetxe, Eguskitza, Olabide, Intzagari, Altube, Intza, Lakonbe, Etxegarai (Karmelo) euskaltzain aukeratua eta Lekuona ur-gazlea.

Araudiak agintzen duenez otoitzez asi da batzaŕaldia.

1. Olabide jaunak iragartzen digu, Azpeiti'ko alderdian, erderaz asi dirala ango irakasleak *dotriňa*

donea irakasten, ala agintzen dielako beren gain da-goenak. Azpeti'ko Apaizburuak gogor ekin die irakasleai, begien auréan dagon gauza bai da, alperíkakoa dala aur euskaldunai erderaz irakastea. Jo da Apezpiko jaunarengana : ez daki Olabide jaunak gerroztik zer gertatu dan. Gai onetaz beste erabaki gañantzidun bat edo beste artu ziran.

2. Azkue jaunak adierazten dio Euskaltzaindiari: Onek erabaki bezela, idatzi diola Bilbo'ko Udalari, Euskeraren ikastaro ta irakasleen arlo bidez. Izendatutako batzordea : Azkue bera, Eguskitza ta Altube, egon da irakasleakin ta batak eta besteak ontara jo dute : emendik ilabete edo bira azterpenak egin ta datoñen urteko ikastaroa, auxe egin-da, moldatu liteke.

3. *Sorospideak*. Napañoa'ko Aldundiak, lengo 3.000 pesetako sorospidea, 2.000'kora gutxitu du. Gañera, ango euskal-jaietarako eman oi zituen 2.800, orain 2.000 utsak izango dira. Euskaltzaindiak aldunetara jo nai luke gutxitze ori aundiegi dala aitortze-ko. Kanpion jauna zerbaite egitekotan gelditu da.

Bizkai'ko Aldundia zalantzak bezela ibili da 15.000 edo 12.000 ematez bañan azkenean 5.000 pesetan gel-ditu da urteko sorospide auxe.

4. Eskola-liburuak aukeratzeko izendatu zan batzordeak arlo onetzaz bere txostena eman du; ta ikas-gai batzuetan nola esan litezen itz erderazkoak, ortan batez ere, jardun du: esate baterako *multiplicar-dividir* euskeraz nola esan.

5. Landefetxe jaunak irakuí du bere aburua : *Euskeria* gure aldizkaria nola efeztu ta iragurgariago egin litekeanen txostena. Berdin Aita Intza'k. Onena

irakurí ondoen, Euskaltzaindiak, bere buru danaren eritziz, Altube jaunari eskeñi dio *Euskera* aldizkaria-ren zuzengoa. Ez du Altube jaunak lan ori beragandik ayenatzen bañan nai luke eta Euskaltzaindiak ere ondo deritza, ortarako egun edo aste batzuen beta, betikotz erantzuteko edo baietz edo ezetz; erabaki au datoñeneko, Landetxe ta Intza'ren idazkien ardura utzi da.

6. Azkue jaunak bere *Morfología* irakurí du.

Ta beste gai batzuek bigaramonerako utzi-ta, otoi-tzez amaitu da batzañaldia.

**Donostia 'n, Gipuzkoa 'ko Aldundi-Jauregian,
1924 'ko Lotaziña 'ren 23' an.**

Auñeko batzañaldian agirian aipatzen diran jaun berak datozi, Kanpion eta Etxegarai ezik.

1. Lekuona urgazle jaunak Euskaltzaindiari irakurí dio bere idazki bat : idazki ontan dakar aditzaren aldi edo garayak betikotz erabaki bear lirakenen era bat. Erantzun dio Lekuona jaunari beste idazki batez Ormaetxea jaunak. Onen idazkia zadorlariak irakurí du. Ez da ezer erabaki Lekuona'ren idazkia *Revista Internacional*-en argitaratzea baño.

2. Lakonbe jaunak, erderaz *participio* edo *adjetivo verbal* esaten danez itz egin du : alegiyan batzuetan *irakur-ikas* datoñela; bestetan, irakurí, ikasi. Euskaltzaindiak gogoz entzun dio.

3. Azkue jaunak bere *Morfología* irakuři du.

Ta beste gairik izan ez-da otoitzez amaitu da batzaŕaldia..

Bilbo'n, Aldundi-Jauregian, 1925'ko Ilbeltza'ren 29'an.

Batzaŕaldian bildu diran euskaltzain jaunak abek dira : Azkue maipuru, Urkijo, Landeŕetxe. Eguskitza, Olabide, Intzagorai, Altube ta Lakonbe eta urgazletatik Ormaetxea, Belaustegigoitia eta Oleaga.

Oiturazko otoitza egin da.

1. Iragari da : Azpeiti'ko alderdian, ostera eskoletan kristau-euskal-ikastaroa beri tu dala.

2. Erizkizundi Irukoitza zerbaite ere bete da emenda an egin 'diran lanez. Orain ordea ondo gertu ta moldatu bear dira lan oyek. Auxe egitea Euskaltzaindi etxeko langileai egotzi zaye.

3. Bazkide aberats batzuk Euskaltzaindiak bereganatu bear litukeala itz egin da ořela noski sorospide geyago izango luke-ta. Aipatu dira Bilbo'ko jaun batzuek; auŕezki-kutxak ere bai, bañan ez da ezer erabaki.

4. Ormaetxea urgazle jaunak bere lan bat irakuři du : *Pasividad del verbo vasco* : gai au lendik Schuchardt jaunak erabili du. Oni erantzun nai dio Ormaetxea jaunak esanik, euskaldunok ezdegula *pasivo*-rik somatzen edo bururatzen gure aditza darabilkigunean.

Oni erantzun dio Urkijo jaunak, ez dala ori (Ormaetxea jaunaren gaya), Schuchardt jaunak erabili ta dakaŕena.

5. Eguskitza jaunak Azkue'ren *Morfología*-ri adibide batzuek jaŕi nai dizkio, *formas familiares*. *Morfología* oŕek dakaŕen gai edo atalean: Eguskitza jaunak dio: *dialogadas* ere esan ditezkela. Olabide jaunak esaten digu: Eguskitza jaunaren idazki au gure *Euskera*'n azaldu bear dala, batez ere Euskaltzaindiaren arazo gain-gaiñekoa da-ta: Oŕelako edo ideko lanak bildu ta ondo gorde.

6. Azkue jaunak bere *Morfología* irakuŕi du.

Ta beste gai batzuek bigaramonerako utzi ta ofoitzez amaitu da batzaŕaldia.

Bilbo'ko Aldundi-Jauregian 1925'ko Ilbeltza'ren 30'an.

Auŕeko agiriyen aipatzen diran euskaltzain berberak bildu dira: urgazletatik Oleaga jauna bakaŕik.

1. Azkue jaunak bere *Morfología*-ri azken irakurpena eman dio.

2. Euskaltzaindiak erabaki du: euskaltzain baikoitzak, bi ilebetetik bein bederik, euskal-gayetatik zerbaŕit ekaŕi dezala, auŕez ordea Euskaltzainburuari zer dakaŕen adierazi-ta.

3. Euskaltzaindiaren urteko diru gora-berak irakuŕi ditu Altubé diruzai jaunak ta ona nola datozañ.

Izango diran sorospideak :

Gipuzkoa'ko Aldundiak	10.000	peseta
Bizkai'koak	5.000	»
Eusko-Ikaskuntzak	3.000	»
Napañoa'ko Aldundiak	2.000	»
Bilbo'ko Udalak.	2.500	»
Donostia'koak	1.000	»
Gipuzkoa'ko Auñezki-Kutxak	1.000	»
Bilbo'ko Udal-Auñezki-kutxak	500	»
Gaizteiz'koak	150	»
Diru-irabazpenak	350	»
<i>Euskeraren</i> arpide ta idaztitan	300	»
Amerika'ko <i>Laurak-Bat-ek</i>	2.000	»
Joan dan urteko kondoia	<u>11.342,03</u>	»
<i>Guzira.</i>	<u>39.142,03</u>	»

Euskaltzaindiaren eralketak aurtengo (gutxi gorabeira)

Urteko Batzañaldiak	9.000	peseta
Oiko batzañetatik gañerako joan-etoriak	3.000	»
Soroski, ikaspide ta sariak :	7.800	»
Landaloko eralketak eta etxea	2.300	»
Arazodunen lan-sariak	4.000	»
Idaztiak argitaratzen, erosten	4.000	»
<i>Guzira.</i>	<u>30.100</u>	»

Urengoko kondorako gelditzen

dira	<u>9.042,03</u>	»
<i>Guzi-guzi beaz.</i>	<u>39.142,03</u>	»

4. *Ezkutitzak.* Etxegarai jaunak bat bialdu du, egun batzuek bañu Euskaltzaindi-etxeen azalduko

dala esanik. Schuchardt-enak eskeŕak ematen dizki-gu, urteroko saria biali diogulako ta auxe artu duela iragartzen digu.

Ta beste gairik izan ez-da otoițez amaitu da batzaŕaldia.

**Donostia 'n, Gipuzkoa 'ko Aldundi-Jauregian,
1925 'ko Otsaila 'ren 26 'an.**

Batzaŕaldi ontara euskaltzain abek datozi : Azkue maipuru, Kanpion, Urkijo, Landefetxe, Eguskitza, Olabide, Intzagorai, Altube, Intza eta Lakonbe.

1. Azkue jaunak dio : Mikoleta'ren elastaldi beri bat egin bear litzakela, Urkijo jaunak duen esku-idazkitik atera-ta. Orefarako Euskaltzaindiak Urkijo jaunaren baimena bear eta onek gogo guziz ematen dio.

2. Urkijo jaunak Euskaltzaindiari iragartzen dio: salgai dagola Bayona'ko diozesiak egindako liburu *Plegariak* baldin erosi nai badu.

3. Katalandaŕak beren *Mapa lingüístico* argitaratu dute : 900 peseta beronengatik eskatzen dituzte. Autua jo da, erosiko ote dan edo ez ta auxe erabaki da : Euskaltzainburuak ikusiko du, ainbeste diruen diña ote dan Mapa ori; diña balitz, erosi beza.

4. Urkijo jaunak Euskaltzaindiari galdera bat egin nai lioke : *Patronimia Vasca* egiteko, Eusko-Ikaskuntza'k Odon Apraiz jauna arazotu du. Badakite euskaltzaiñak *Toponimia Vasca* zertan dagon : Eleizalde zanaren sendiari eskatu zayo eta onek ez

du erantzuten. Eragozpenik ote litzaken, galdetzen du Urkijo jaunak *Patronimia*'ko lana bere gain artu duen batzordeak, Toponimia'koa ere artzea? Ezetz erantzun dio Euskaltzaindiak.

5. Azkue jaunak esaten digu, on litzakela Etxegarai jaunari galdetzea, Altube'ren bitartez, emendik bi ilabeterako gertuko ote litzakeri Euskaltzaindian bere saíra egiteko. Onetsi du Euskaltzaindiak galdebide auxe.

6. Azkue jaun berak irakuí digu, bere lan eder bat *Repartición semántica* deritzana.

Ta beste gai batzuek bigaramonerako utzi ta, otoi-tzez amaitu da batzaíaldia.

Donostia 'n, Gipuzkoa 'ko Aldundi-Jauregian,
1925 'ko Otsaila'ren 27 'an.

Auréko agirian aipatzen diran euskaltzain berak datoaz.

1. Urkijo jaunak antziñako idazki batzuek aztertuta, *Kampomanes* zeritzan gizon ospetsuak, euskeraren alde zer egin zuenen béri eman digu. Urkijo'ren lan ortan dakusgu zenbat arduratzen zan *Sociedad de Amigos del País* euskera maitea geyen-geyenen ezagutarazten. Oroitu diitu Urkijo'k : Aipitarte'ren lanaz euskal-iztegian eta Egino jaunarenak atsotitz ta esakunetan. Oso gogo aundiz entzun dio Urkijo jaunari Euskaltzaindiak.

2. Altube jaunak irakuí digu, bere lan eder bat, Azkue'ren *Morfología*-ri oartxo batzuek ezañirik.

3. Aita Intza'k ere irakurí dizkigu Napañoa-aldean idoro dituen euskal-itz berriak.

4. Azkue jaunak erderazko *modismo*-i dagokion euskal-esakerak deritzan lana irakurí du.

5. Kanpion jaunak esan digu: Datoren Agoñil'ean Axular zanaren jai-oroiigarí batzuék Sará'n ospatzera dijoazela : On litzakela Euskaltzaïndia jai oyetan iza-tea. Jai-egileak ez digute oraindik ezertxo ere adierazi, ta obe da noski gerorako ustea onen erabakia.

Ta beste gairik izan ez-ta, otoiinez amaitu da batazaldia.

Bilbo'n Euskaltzaindiaren etxean, 1925'ko Epai-la'ren 26'an.

Azkue jauna maipuru dutela euskaltzain abek bildu dira : Urkijo, Landeretxe, Olabide, Altube, Lakonbe ta Intzagarai. Urgazletatik Belaustegigoitia jauna. Maipuruak otoiak egin du.

1. Olabide jaunak dio : Bilbo'ko egunari *Euzkadi*'n galdetu duela, zergatik azaltzen ez diran, egunari onen ofialdetan, Ebanjelioaren zatiitxoak, ta erantzun diotela euskerazko zatitxo oiek ez dauzkatelako.

Euzkadi'k artu lezazkike, oraintxe agertu dan *Argi-donea* deitzen dan eliz-liburutik.

2. Maipuru jaunak irakurí du Agirre Domingo euskaltzain maite zanaren anaiaren eskutitz bat, aren euskal-lanak, argitara bide, zertan ote dauden galde-trik. Etxegarai jaunaren beste eskutitz bat ere irakurí da, auxe gai duelarik.

Erabaki da : Intzagarai jaunak bildu ditzala Agiré zanaren idazti lan berezi batzuek, ta abek argitaratzea, zerbait diru emanik, Agiré'ren senideari, jabetasunaren ordainbidez.

3. Bähr jaunari joan dan udaraldiko bere euskal-lanagatik zer sari eman lekioken autua jo da. Ikusten danez, bere eralketak 489,60 peseta izan dira. Euskaltzain batzuek diote, Bähr jaunak, eralketa ta bere lan ordain, 650 peseta artu lezazkikela ta geiago ez noski, Euskaltzaindiaren bekaduna dalako.

4. Altube jaunak oarbide luze ta mamitsu bat dakar, Azkue jaunaren *Morfología*'ri zerbaitetan ere erantzuteko. Gogoz entzun dute euskaltzain jaun guziak, batez ere *acento-ri* dagokion zafi ederá. Lan onek zer ikusi asko duelako Azkue'ren Morfología-rekin gure aldizkari *Euskera*'n argitaratuko da.

5. Olabide jaunak, esku-idazti batetik artu-ta, Iruña aldeko erderari ezañita dabiltsan euskal-itz askoren zerrenda irakurí digu.

Lan polit eta txalogaría da. *Revista Internacional*' en argitaratuko da.

Ta beste gai batzuek bigaramoneraako utzita otoi-tzez amaitu da batzañaldi au.

Bilbo 'n, Euskaltzaindiaren etxean, 1925 'ko
Epaile 'ren 27 'an.

Auñeko batzañaldian aipatzen diran euskaltzain berak biltzen dira eta urgazletatik batez.

1. Azkue jaunak bere *Morfología* amaitu ta orain bere lan ederaren argibidea dakarkigu. Argibide orek lenbizi euskal idazleen leño agiria dakar euskal-idazle beri batzuek emanik. Gero gaien leñoa dator. Batzaraldiaaren asti geiena irakurpen onek eraman digu.
2. Bilbo'ko Udal-aren euskal-irakasleen azterkari ta epaile izateko, garaia danean, Euskaltzaindiak Altube, Eguskitza ta Azkue izendatu ditu.
3. Etxegarai jaunari esan bear zaio bere euskaltzain-saferako itzaldiaren agiritxo bat Eguskitza jaunari biali dezaiola.
Ta beste gairik izan ezda otoițez bukatu da batzaraldia.

Donostia 'n, Gipuzkoa 'ko Aldundi-Jauregian,
1925 'ko Yořaila 'ren 27 'an.

Batzaraldira euskaltzain abek datozi : Azkue mai-puru, Kanpion, Urkijo, Landereñxe, Eguskitza, Olabide, Altube, Intzagarai, Intza ta Lakonbe. Araudi-otitzta egin da.

1. Urkijo jaunak esaten digu : Juan Karlos Gerá jauna autatu bear litzakela Euskaltzaindiko urgazle izateko, edozeñek daki-ta, jaun onek euskeraren alde lan asko egiten duela, batez ere oraingo txandan, antziñako euskal-neurtitzak argitaraturik.

Euskaltzaindiak pozik aukeratzen du Juan Karlos Gerá jauna bere urgazletzat ta auxe ori iragari bear zaio.

Beste jaun agurgari bat aipatzen du Urkijo jaunak: Trombetti jauna. Onek ere bere idazti eder batean euskera goratzen du ta noski euskaltzaindiak zerbaitez saritu bear luke.

Zer aipamen eman bear litzaioken, ez da batzaaldi ontan erabaki, baña datoén ilekoan erabaki bear litzake.

2. Altube jaunak jaíitu du bere lana, euskal-acento gaibidetza arturik. Lengo batzaretan irakuritako txostenaren osabidea da. Gogoz entzun dio euskaltzaindiak.

3. Euskaltzaindiak erabaki du : Agirre gure lan-kide maite zanaren idazki batzuek argitaratzea; olerki ta ipuitxoak izango dira liburu berri onen mami. Intzagarai'k aukeratu lezazkike.

4. Aita Intza'k irakuiri digu Napañoa'ko Aldundiak berari bialtzen dion eskutitz bat. 650 peseta gelditu dira Napañoa'ko euskal-jaialdiak egin-da gero; ta Aldundiak dio Euskaltzaindiak gorde ditzazkela, geroko jai batzuetarako asibide izan ditezen.

Aldundiari diru ori eskatu bear zaio ta auñezki-kutxan jaíri.

5. Lekarotz'en euskal-azterketak izango dira. Euskaltzain jaun bat antxen agertzea, bertako Zuzendarriak nai luke.

Azkue jauna joango da.

Ta beste gai batzuek uñengo batzaaldirako lagata amaitu da auxe.

**Donostia 'n, Gipuzkoa 'ko Aldundi-Jauregian,
1925 'ko Yoñaiña 'ren 28 'an.**

Auñeko batzaldiko euskaltzain berak datoz eta urgazletatik batez.

Araudiak agintzen duanez otoitza egin da.

1. Azkue jaunak euskal-esakerak (modismos), berak bilduak irakurri ditu.

2. Batzaldi ontan geundela, Eusko-Ikaskuntza' ko gelan, Juan Karlos Gerá jauna sartu da. Altxa dira euskaltzain guziak ta esku eman ta agur egin diote. Alkia eman zaio. Azkue'k jañaitu du bere lana ta orixe bukatu duenean, besterik izan ez ta otoitzez amaitu da batzaldi au.

**Donostia 'n, Gipuzkoa 'ko Aldundi-Jauregian,
1925 'ko Oñilaren 28 'an.**

Azkue maipuru dala euskaltzain abek agertu dira : Kämpion, Urkijo, Landetxe, Eguskitza, Olabide, Intzagari, Intza ta Lakonbe. Otoitzez asi da batzaldia.

1. Aifa Intza'k iragartzen digu : Iruñako Gotzai jauna alegintzen dala Euskeraren alde. Baziran apaiz batzuek, erderaz itzaldiak egiten zituztenak, euskaldun osoak beren eleitzar ta entzuleak izanik. Auxe zirao kendu du Gotzai jaunak ta bere agindu zoñotzez ez dute apaiz oiek auerantzean erdrazko itzaldirik

egingo, euskerazkoak baño. Pozik entzun du Euskaltzaindiak.

2. Aita Olabide'k dio : Barbier jaunak Bayona'ko *Gure Herria*'n idatzi dituen ipuiak, piñan argitaratu bear lirakela. Azkue'k erantzun dio berak ere badituela ipui politak argitaragari. Gipuzkoeraz jaŕi litezkela ipui abek, bañan alkarízketak bizkai-euskalkiz lagatxa. Ez da ezer erabaki.

3. Aita Intza'k galdetzen dio Euskaltzaindiari : Aurtengo Napar-euskal-jaiak non egin litezen. Berak ez du lan aben ardurarik artu nai, bakaŕik orainartean bezala ibiltzekotan. Ez du bere ordez ibili litekeanik idoro; ta Euskaltzaindiak erantzun lezaioke zer egin bear dan. Asko itz-egin ondoren, ez da ezer erabaki.

4. Aita Intza'k berak irakuŕi digu lan bat: *Irakas-leak eta euskeria*. Euskaltzaindiak gogo aundiz entzun dio.

5. Aita onek berak dio : Lizaso'n, Napaŕoa'n, esate baterako, alkate, Sekretario ta beste eri-arazodunak erderaz itz egiten dutela gazteen eredu txarterako : Galdetzen dio Euskaltzaindiari : zerbait eskari egir ote lizaioken Napaŕoa'ko Aldundiari, eri-arazodunak bear arazteko euskeraz mintzatzen. Euskaltzaindiak egingo dio Aldundiari aŕen ori.

6. Ikastoletarako liburutzaz luze itz egin da. Euskaltzaindiak dakus : badirala naiko liburu orainarteko bearfasunari erañtzuteko. Begiratu bear dana auxe da : *Euskaleŕiko edesti* laburtxo baten ardura. Kampion eta Urkijo jaunak eman digute beren elburua gai ontan, esanik : gaitz-xamara litzakela *Euskaleŕiko*

edesti laburtxo ori idaztea, gure edestian, ez dalako, uste ain eŕeza, eŕi-guzien gertapen-batasuna. Uŕengo Batzáraldien batean arduragoz ikutuko da gai au ta orduarte bego erabaki gabe:

7. Eguskitza jaunak lan gain-gaňeko bat irakurí digu: Azkue'ren *Morfología*'ri oarpenak. Erabili ditu: *declinación, subfijación, naturaleza de nuestra aglutinación; examen de la terminación tu-du de los nombres verbales euskéricos con relación de supino y pretérito latinos tum-tu-tus, ta, tum.*

Oso gogoz entzun dizkagu oren gai eder ta goienak.

Ta beste erizkizun batzuek bigaramonerako utzi-ta otoitzez amaitu da batzáraldi au.

**Donostia 'n, Gipuzkoa 'ko Aldundi-Jauregian,
1925 'ko Oŕila 'ren 29 'an.**

Len aipatzen diran euskaltzain berak daude alkietan, Azkue maipuru dala.

1. Aita Intza'k dio: Ardura biziz asi bear dala Iztegirako itz beri biña. Baietz erantzun zaio.

2. Azkue jaunak Euskal-esakerak (modismos) irakurí ditu ta pila galanta noski.

Ta beste gairik izan ezta, otoitzez amaitu da batzáraldi au.
